



1/2016 gaia

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI (...) JAUNAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, HORRETAKO GAIA BAITA (...)KO HIRI ANTOLAKETAKO ARAUEN ALDAKETA AURKEZTEN DEN OSOKO BILKURAN BERTAKO UDALEKO ZINEGOTZI GISA IZAN DEZAKEEN PARTAIDETZA, ESPEDIENTE HORREN GAINEKO NAHITAEZKO TXOSTENA EMAN BEHARKO BAITU, ONDOREN, BERAK ZUZENDARI KARGUA BETETZEN DUEN DEPARTAMENTUAK

I.- KONTSULTA

1.- 2016ko maiatzaren 16an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) igorritako mezu elektronikoaren bidez interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusia bera, iritzia eskatzen dio EEBri, bere zuzendari karguaren eta (...)ko Udaleko zinegotzi karguaren artean gatazka sor litekeela uste duen egoera bati dagokionez.

2.- Mezu elektronikoan eskatzaileak adierazten du ezen bera zinegotzia den (...)ko Udalean aurreikusita dagoela osoko bilkuraren erabaki baten bidez Udalerriko arau subsidiarioak aldatzeko espediente bat abiatzea.

3.- Hiri antolaketako arauak aldatzeko espedienteak (...) gaineko etorkizuneko afekzio batzuk aurreikusten ditu, eta eskatzaileak zuzendari nagusi kargua duen Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuaren nahitaezko txostena eskatzen du horrek.

4.- Esku artean dugun kontsulta interesdunak maila etikoko zalantza batzuk dauzkalako formulatu da. Horregatik, EEB honen iritzia ezagutu nahi du, Udalerriko arau subsidiarioen aldaketa posiblearako espedienteari dagokionez (...)ko Udaleko Osoko Bilkuraren botazioan izan dezakeen partaidetzari buruz, udal horretako zinegotzia baita, kontuan harturik baina gero ere agian parte hartuko duela, Foru Aldundian eskumena duen departamentuko zuzendari gisa, osoko bilkuraren botazioaren gai izango den espedientearen gaineko nahitaezko txostena emateko.



II.- APLIKAZIO ARAUAK

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen; horren helburua etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun ezaugarritzat finkatzea da.

Sistema horren barnean Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea dago, eta foru kargu publikoek nahiz langile baliokideek beren eginkizun eta jarduera publikoetan edo, hala dagokionean, zerbitzuak ematen dituzten erakundearen irudiaren gainean eragin dezaketen pribatuetan ari direnean gorde eta sustatu beharko dituzten jokabide eta jarduera arauak identifikatzen ditu. Horren guztiaren xedea zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzea da, erakundearen irudia babestuta betiere.

2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak zortzi balore, zehazki ordezkari, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna eta bizikidetzeta eta errespetua, eta zortzi printzipio egituratzaile dauzka, lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa eta kontuak ematea, alegia.

Balore eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horiek osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezten interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkieten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sisteman aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balore, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-beteteri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, eta baita Foru Administrazioaren eta beronen foru sektore publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gainean ere, hala badagokio.



4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzekoak, 3.b) artikuluan xedatzen du ezen EEBri dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 1.3 artikuluan ezarriaren arabera, eskatzaileari aplika dakiok.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Planteatzen den lehen kontua Udalerriko arau subsidiarioen aldaketa posible baten gainean (...)ko Udaleko Osoko Bilkurak egingo duen botazioan interesdunak izan dezakeen partaidetzari buruzkoa da; izan ere interesdunak kargu publikoa du horretan, zinegotzi kargua zehazki, eta Aldundiko departamentu eskudunak, hain zuzen interesdunak (...) zuzendari nagusi kargua duenak, nahitaezko txostena eman behar du ondoren, aipatu espedienteari dagokionez.

Zinegotzi karguak errespetatu egin behar du Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 76. artikulua edukia, horrek xedatzen baitu ezen, Legean ezarritako bateraezintasun-arrazoen aurka jarri gabe, toki korporazioetako kideek ez dutela eztabaidetan, bozketan, erabakietan eta betearaztean parte hartuko, gaia edozein dela ere, administrazio prozeduraren eta herri administrazioaren kontratazioen legedian aipatutako arrazoren bat gertatzen denean. Arrazoi horiek tarteko direla toki korporazioetako kideek jarduten badute, eta jarduera erabakigarria izan bada, beren partaidetzaz onartutako egintzak baliogabeak izango dira.

Kasu honetan, interesdunak duen zinegotzi kargua bateragarria da zuzendari karguarekin, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketari, Gobernuari eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 47. artikulua 37. artikuluekiko aplikatuta.

Parte ez hartzeko arrazoiak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28.2 artikuluan jaso eta araututa daude, honakoak dira:



- a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

- b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritza.

- c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritu izana.

- e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izana.

Beraz, zinegotzi kargua baliatzean ez da parte ez hartzeko arrazoirik sortzen eta, horrenbestez, (...) jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusiak, parte har dezake hiri antolaketako arauen aldaketari buruzko erabakia hartuko den (...)ko Udalaren Osoko Bilkuraren botazioan.

2.- Planteatutako bigarren kontua interesdunak ondoren izan dezakeen esku-hartzeari buruzkoa da; izan ere, udalaren osoko bilkuran onar daitekeen (...)ko udalerriko hiri antolaketako arauak aldatzeko espedienteari buruzko nahitaezko txostena eman behar duen Foru Aldundiko departamentu eskudunean zuzendari kargua du.

Kontu hori erakundearen zuzentasunarekin lotutako jokabide arauen barnean sar daiteke, zehazki Gipuzkoako Foru Administrazioiko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauetan.

Batetik, horietako lehenak jasotzen duenaren arabera, interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

Bestetik, 3.5.a) eta b) arauak jasotzen dute ezen foru kargu publikoek objektibotasunez eta interes orokorren zein herritarren interesen alde jardun beharko dutela beren jardura publikoetan, eta, horretarako, beren funtzioetatik kanpo utzi beharko dutela edozein jardura susmagarri, baldin eta horien bidez modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate pribatu edo publiko edo pertsona zehatzei zuzeneko zein zeharkako onura sor diezaieketela badirudi.

Gauzak horrela, kasu honetan uler daiteke interes gatazka bat dagoela 3.4.d) arauan finkatutako baldintzetan eta, gainera, kontuan harturik zuzendari karguan aritzean saihestu egin behar dela modu ez-objektiboan eta argumenturik gabe, entitate publikoei zuzeneko zein zeharkako onura sor diezaiekeela dirudien jardunbide eta jardura oro, EEB honen iritziz erakundearen zuzentasun sistemari ondoen egokitzen zaiona da interesdunak parte ez hartzea espediente horretan, ez Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28. artikulua betetzeko, ez baita kasu honetan zuzenean aplikagarria, baizik eta neurri egokiena delako Gipuzkoako Foru Administrazioako Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arau aipatuen espiritua eta xedera begira.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

EBAZPENA

Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusia, (...) jaunak parte har dezake zinegotzi gisa, (...)ko Udalbatzarreko bozketan, Udalerriko arau subsidiarioak aldatzeari dagokion gaiari dagokionez, kasu honetan ez direlako ematen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aurreikusten dituen parte ez hartzeko zioak.



Bigarrena.- Udalbatzarreko gai horren inguruan, gerora (...) jaunaren parte hartzeari dagokionez, aipatu udalbatzarreko espedientean txostena eman behar duen Foru Aldundiko departamentuko zuzendari nagusia den heinean, abstenitzea proposatzen da Gipuzkoako Foru Administrazioaren Jokabideen eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.4.d) eta 3.5.a) eta b) arauen muina eta xedeei jarraiki. Ondorio honetarako, hierarkikoki nagusi denari idatzi bat aurkeztu beharko zaio.

Imanol Lasa Zeberio

Erakundearen Etika Batzordeko burua

Donostia, 2016ko maiatzaren 26an